Saint Jean Pied de Port, 37-6-29

Lafitte Apaiz Jauna

<u>USTARITZ</u>

Apaizkide agurgafia:

Eldu gera zuk ain maiteki bilatu diguzun aur-etxera.

Bietz-enekoa da euzkalduna ta emengo aufak beren esker ona agertu nai dizue.

Datofen estegunean jaitxo bat egingo dute zure omenez eta zuk bezela etxe onen alde lan dagiten guztiak txalotzeafen.

Atoz, ba, poz-pozik gaude zu ikusteko.
Gernika'ko "Elai-Alai" taldeak zerbait egingo du, baita Zabalbeaskoa andereñoak abestu ere.

Agur, Jauna, ta estegun arte.

Kristo baitan zure-zurea.

Azpiazu'tar Iñaki
apaiza

Buenos Aires'etik 1954'gn. Epaillaren 20'gna.

P. Lafitte
College de Saint Benard
Bayonne
France

Nere begirapen aundieneko Jaun ori:

Zure ta nere adizkide López Mendizabal Ixaka Jaunak zure zuzenbidea eman dit, idazki au zuri bidaltzeko.

Garillaren erdi aldean EUSKALDUNAK izeneko aldizkako bat agertuko da, euskaldun taldearentzat.

Aldizkako onek asmo au dauka: Argentina'n eta Amerikaetako beste erietan sabanatuta dagon euskaldun talde aundiari, albiste gañantsidunak emanez, gizon ta euskal jakin-gaiak irakastea, gure zaañen araura gizabidea eraitzeko.

EUSKALDUNAK ez du politika gairik erabiliko.

Eskaera bat dagizuket: zuk bidaltzea erabilli oi dituzun gaiezaz idazlanen bat bidaltzea, 500'etik 800'era itz dituna. Zuk eusko yakintzaren alde egin duzuna Amerikaetan dagozan euskaldunen artean yakingañi ta zabalgañia da.

Zure berri auen zai ta zure aginduetan dago, biotzez agurtzen zaitun

Iñaki de Azpiazu
Córdoba 3329
Buenos Aires

Oaña: Bidali, aren, zure leen idazlana mayetzaren azken alderako.